

LITERATURAREN HISTORIA (XVIII. Mendea)

Argietan barrena

1. Pentsamenduaren arloa:
 - **Filosofiak** kendu zion lekua teologiari
 - **Empirismoak** metafisika klasikoari lekua kendu zion.
2. Aldakuntza sakonetik ezagutzen duten lehen herrialdeak: **Frantzia, Ingalaterra eta Alemania**
3. **ILUSTRAZIOA**
 - **Kant. Zer dira argiak?**
 - “Argiak dira gizakia bere txikitasunetik aterarazten dutenak (...) Txikitasun hori ez da adimen faltagatik, bestek egotzia baizik (...) **zure adimenaz baliatzeko adorea izan ezazu!**
 - Ilustrazioa gizakiak txikitasun mentaletik ateratzeko egiten duen ahalegina da, beraz, arrazoian oinarritutako ahalegina, gizakiak libre egiteko eta herrien aurrerapenerako ezinbestekoa dena.
 - Kultura: aske eta zoriontsu izateko ezinbesteko baldintza
 - Hezkuntza: arazo politiko. Berebiziko garrantzia
 - Pertsona: arrazoia eta erabakitzeko ahalmena

Frantziako Entziklopedismoa

Diderot eta D´Alamberten entziklopedia

1. Herria hezteko proiektua erraldoia (1751-1772)
2. Helburua: Zientzia, pentsamendua eta arteen arteko loturak finkatu eta haietan orduan zegoen jakituriaren oinarri orokor guztiak biltzea.
3. Burgesia guztia eta nobleziaren zati bat, entziklopediaren alde
4. Eliza: KONTRA
 - Batez ere jesuitak: Orduko hezkuntzaren monopolioa zeukaten. 1764an Frantziatik kanporatuak izan ziren.
 - Entziklopedismoa berehala zabaldu zen beste europar herrialdeetara.

Ilustrazioa Euskal Herrian

1. Iparraldean: Iraupen gutxiko txinparta.
2. Hegoaldean: Ez zen emankorregia izan.
3. **Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte** (1761):
 - Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eliteetako gazteak elkartzeko (“Irurak-bat”)
 - Zientzia eta kultura garatzea, gizarte modernizatzea eta gizarte gaitzei (alkohola...) aurre egitea helburu.
 - Euskaraz ziharduen herri xeheetik oso urrun.

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta euskara

Eskola txikietan gaztelera ezartzeko argudioak (1772an)

–“ porque aunque la lengua peculiar del País es la Bascongada, la de la Nación es la Castellana, y consiguientemente la nativa de todos los Españoles. (...) Porque por disposición del Gobierno no puede en las Escuelas de País usarse otra lengua que la Castellana; por lo tanto, todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dan a los muchachos son en Castellano, *prohibiendose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido*

un anillo, que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo, que aquel en cuyo poder es encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado”.

1. Kultur hizkuntza: gaztelania.
2. Euskarazko literatura: nekazari- ikuspegia ahaztu gabe eta **erlijio-gizon zenbaiten interesagatik eta hizkuntz leialtasunagatik.**

Hizkuntz kezka abiapuntu

Hegoaldeko euskalkien esnatzea

1. Hizkuntza nagusien (Estatuaren jabe direnak) presioa
2. Hizkuntzak bitan banatzen zituzten.
 - Onak eta landuak (beraienak)
 - Basatiak.
 - Gero eta premia handiagoa euskararen birtualtasuna, ahalmena eta gaitasuna demostratzeko; konplexuak uxatu eta kultur hizkuntza finkatzen has zedin.
 - Lan hau kanpora begira egin zuten. **Erdaretan idatzia.**
3. Euskarari “arte” bihurtzea falta zitzaion: Ez zegoen euskal gramatikarik.
 - *Gramática castellana* (1492). Antonio de Nebrija.
 - *Lesclarcissement de la langue francoyse* (1530). John Palsgrave

Literatur lekukoaren esku-aldatzea

1. Garaiko lapurtar literatura ospetsuaren beherakada
 - Utrecht-eko Ituna (1713). Ternua Ingalaterraren menpera pasatzean, euskal arrantzaleek ezin izan zuten bertara arrantzatzerara joan. Egoera ekonomikoa bortizki kolpatu zuen gertakari honek.
 - Egoera erlijiosoak: XVII.mendeko une bortitzak pasatuta.
 - Katolizismoa erabat hedatuta

Oinarritzko material erlijiosoak idatzita (kateximak, irakurgaiak...) beraz, material berriaren premiarik ez

Joanes Etxeberri sarakoa

1. Sara, 1668 – Azkoitia, 1749
2. Medikua
3. Mediku lanetan aritu zen, Saran, Beran, Elizondon, Hondarribian eta Azkoitian.
4. Joanes Etxeberri Sarakoa da iparraldeko literaturaren loraldiaren amaiera hegoaldekoaren loratzearekin tematikoki (euskararen goratzea), kronologikoki (Larramendi ezagutu zuen), eta geografikoki uztartuko duen lokarria.
5. Lotura-gunea: Azkoitia.
 - Saratarraren azken urteetako bizitokia
 - Larramendiren erretiroaren egoitza.

Joanes Etxeberri Sarakoaren obra

1. Euskarari buruz, euskaraz idatzi eta iritsi zaigun lehen apologia
 - Euskararen erabilgarritasuna eta potentzialitatea
 - Antzintasuna
 - Aldagaiztasuna
 - Euskalkiak gainditzeko premia
 - Sarako hizkera literatur eredu
 - Axular eredu nagusi.
 - Idazle gisa lan mardula burutu zuen, baina garaian ez zuen argirik ikusi.
 - 1907an Julio Urkixok aurkitu zituen Zarauzko frantzizkotarren komentuan.

- **Lau-urdiri gomendiozco carta, edo guthuna (1718)** Lapurtarren Biltzarrari egindako gutuna da. Bertan euskaraz, lapurdiko eskoletan irakasteko eskakizuna egiten du.. Biltzarrak ezezko erantzuna eman zion.
2. **Escuararen hatsapenac (1712):** Saiakera elebiduna, euskaraz eta latinez idatzitako euskararen apologia-lana,
 3. **Euscal-herriari eta Euscaldun guztiei escuarazco hatsapenac latin icasteco. (1712** baino lehen idatzia) Garai hartan kultur hizkuntza latina zen oraindik. Horregatik euskaldunak, gaztelaniazko edo frantsesezko ikasbideetara jo behar izaten zuten latinaz jabetzeko.
 4. Bazen laugarren obra bat ere; *Hiztegia*, euskaraz, latinez, frantsesez eta gaztelaniaz atondua. Larramendik ezagutu eta erabili zuen, baina badirudi betiko galdu zela.

Manuel (garagorri) Larramendi

1. Andoain, 1690 - Loiola, Azpeitia, 1766
2. Txomin Garagorri eta Manuela Larramendi zituen guraso.
3. jesuita izan zen.
4. Salamancako Unibertsitateko Filosofia eta Teologia irakasle
5. euskararen defendatzaile sutsua zen.
6. Kultura handiko gizona, jarraitzaile anitz izan zituen.

Bere idazlan gehienak gaztelania jasoan egin zituen

Manuel Larramendiren lanetako batzuk

1. **El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada** (Ezina, egina) (1729): euskararen lehen "arte" edo gramatika argitaratua
2. **Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, Latin** (1745). Espainiako Errege Akademiaren Autoritateen Hiztegia argitaratu berria zela, Larramendik oso-osorik euskaratu nahi izan zuen, erdaldunak euskal hizkuntzaren aberastasunaz konbentzitzeko.
3. **De la Antigüedad y universalidad del Bascuence en España** (1728). Euskara Espainiako jatorrizko hizkuntza bakarra.
4. **Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria** (1736). Euskokantabrismoaren teoria defendatzen du.
5. **Corografía de Guipuzcoa edo Corografía o descripción general de la muy noble y leal Provincia de Guipúzcoa** (1754): Gipuzkoako geografia eta bertoko herritarren ohiturak, jantziak, dantzak, hizkuntza eta ogibideak azaltzen dituen lan etnografikoa.

Larramendiren eraginak

1. gramatikalari gisa eta hiztegi-gintza arloan ezabagaitza den arrastoa utzi zuen.
2. bere asmo nagusia euskara kultura hizkuntza bihurtzea izan zen. Horregatik, euskal idazleen bultzatzaile handia izan zen,
3. haren babesean hasi baitziren lanean Mendiburu, Kardaberaz eta gipuzkera maila literarioa jaso zuten hainbat idazle, eta ordura arte hegoaldeko euskara idatziak inondik ere agertzen ez zuen duintasuna du, Larramendiren garaiaz gero.
4. Gipuzkeraz idatzi zuten idazle horiek Larramendiren eskola osatzen dutela esaten da gaur egun.